

IRITZI ARTIKULUA

Aldiri: lehen arkitektura-aldizkaria



Unai Fernández de Betoño

EHUko Lurralde-
antolamendu eta
Hirigintzako irakaslea

Jasotze data: 2021-10-17
Onartze data: 2021-10-30

+++++

Hamabi urteko ibilbidea betetzear zegoela, *Aldiri* arkitektura-aldizkaria egiten duten kideek proiektuari amaiera ematea erabaki dute. Ulergarria, erabat. Proiektuaren azken bospasei urteak hasierakoak baino urrunagotik jarraitu ditudan arren, imajinatu ditzaket arrazoiak: hasierako urteetako berdinak edo berdintsuak. Euskarazko edozein aldizkarik lehen egunetik dituen antzerako arazoak, alegia: nekea, proiektuarekin jarraitzeko zailtasuna, batzuetan nabaritutako ostrazismoa, hizkuntza txikitu batean edozein termino teknikorekin borrokatu beharra... Periferian derrigorrez geratu beharra, aldirian, azken finean (hortik aldizkariaren izena?). Erdigunea beste hizkuntza batzuetako berripaperek betetzeko ezarrita dagoela badirudielako. Gurean frantsesak eta espainierak okupatzen dute espazio zentral idatzi hori, eta, akademiaren testuinguruan, baita ingelesak ere. Zertarako, euskarazko arkitektura-aldizkari bat?

Talde-lana

Ibai Gandiaga arkitektoak eta biok euskarazko arkitektura-aldizkari bat egin nahi genuen, paperezkoa, Interneteko blogetatik harago. Aldizkariaren eredu posiblez eztabaidatu ondoren, hiruhilabetekaria izatea adostu genuen, artikulua dibulгатiboak eta akademikoak nahastuko zituena, gai monografiko nagusi baten inguruan. Aldizkariaren lehen maketa bat egin genuen 2008ko urrian, eta Karmele Artetxe eta Xabier Isasirekin bildu ginen, Udako Euskal Unibertsitatearen babesa jasotzeko; baita lortu ere. Eskertzekoa da UEUk gure alde hasieratik egin zuen apostua.

Agurtzane Elguren eta Ula Iruretagoiena arkitektoekin batera, azkenean, 2009ko urrian *Aldiri*ren 0. zenbakia kaleratu genuen, izenburu aski autobiografiko batekin: «Hasiberriak. Arkitekto gazteon komeriak». Zenbaki horretan *Aldiri*ren hasierako taldearen muina osatuko zuten Kepa Iturralde, Maider Uriarte eta Ander Gortazar arkitektoek ere idatzi zuten. Esan daiteke *Aldiri* talde-lanaren emaitza izan dela hasiera-hasieratik.

*Aldiri*ren xedea

Euskarazko lehen arkitektura-aldizkaria egitea zen helburua. Arkitekturaz aritzea, euskaraz, munduko beste hizkuntzetan egiten duten moduan. Garai hartan EHU itzulpenak egiten hasia zen (Muller eta Vogelen Arkitektura Atlas, Paricioren Arkitekturaren eraikuntza, Sola-Moralesen Hiri-hazkunde motak), itzulpen onak eta beharrezkoak, baina guk euskarazko berezko sorkuntza bultzatu nahi genuen.

Halaber, ez genuen soilik arkitekturaz modu ortodoxoan aritu nahi, beste hainbat aldizkariaren moduan; bestelako gai ei ere tarte eskaini nahi genien: hirigintza, lurralde-antolamendua, artea, soziologia, ekologia, ekonomia... Ildo heterodoxo samar berean, zenbaki bakoitzean komiki bat ere sartzea erabaki genuen, hasierako urtetako Joseba Larratxe «Josevisky» arkitekto eta komikigilearen kolaborazioari esker.

Bilakaera

Aldizkariaren formatoa pixka bat akademikoagoa bihurtu da denborarekin. Horrekin lortu dugu *Aldiri* Dialnet, Latindex eta MIAR indize eta katalogo akademikoetan agertzea. Bide horretan sakonduz, unibertsitate-irakasle eta ikerlari gazteentzat *Aldirin* idaztea mesedegarria izatea lortu nahi genuen; akreditazioak-eta lortzeko *Aldirin* idaztea erabilgarria suertatzea. Euskarazko aldizkarien indexazio akademikoak kristalezko sabai bat ezarria duen arren, UEUren Uztaro aldizkariak egin duen bidea eta lortu duen aintzatespena genuen eredu.

Aldiriko lantaldea ere berritu da denborarekin: Leire Milikua, Anartz Ormaza, Ianire de Andres, Ander Zangitu, Itsaso Larramendi, Laura Maioz eta beste arkitekto batzuk ere bildu dira proiektura, eta besteok bigarren maila batera pasa ginen. Poztekoa da proiektuan ordezkapena egon dela ikustea.

Euskarazko ikerketa eta arkitektura

Unibertsitate-mailako arkitektura-irakaskuntza ia osorik euskaraz dagoen arren (eta ez da gutxi, ikusita zer egoeratik gentozen), esango nuke euskarazko arkitektura-ikerketa hutsaren hurrengo dela oraindik. Doktorego-tesiren bat euskaraz egin da, bai, baina, oso oker ez banago, esku bateko hatzekin zenbatu daitezke guztira euskaraz egin diren

arkitekturako tesiak. Artikulugintzan *Aldiri* aldizkaria egon da soilik, nik dakidala. Eta euskarazko berezko liburugintzan, UEUren argitalpenak baino ez, salbuespenen bat kenduta. Udako Euskal Unibertsitatea, beraz, ia oasia da euskarazko ikerketa arkitektonikoaren basamortuan.

Puntu... eta koma?

Kitto. *Aldirik* argitaratzeari utziko dio. Tarte batez, gutxienez. Ikusiko da beste norbaitzuek inoiz hartzen dioten lekukoa euskarazko lehen arkitektura-aldizkaria izandakoari, ala *Aldiriko* lantaldeak berak proiektuari bigarren bizitarik ematen ote dion. Eskerrik beroenak *Aldiri* proiektuari babesa eman dioten bazkide guztiei eta Udako Euskal Unibertsitateari. Gero arte.

+++